



UNIVERSITY EDUCATORS  
FOR SUSTAINABLE DEVELOPMENT

# University Educators for Sustainable Development

**U**E4SD proiektua (University Educators for Sustainable Development) Europako 33 herrialdeko 55 kidek osatzen dute, eta goi-mailako irakaskuntzako ikasketa-planak garapen iraunkorrerantz bideratzea du helburu. Proiektuak 3 urte iraungo du, eta unibertsitateko irakasleei laguntzea datza; hartara, irakasleak gai izango dira edozein ikasketa-arlotako eta espezializazioetako ikasleei irakasteko zer erantzukizun profesional dituzten iraunkortasunaren arloan eta nola bete ditzaketen erantzukizun horiek. Proiektuan orobat daude unibertsitateko langileentzako jarduerak batzuk, lagungarri direnak garapen iraunkorrerako hezkuntzari lotutako gaitasun profesionalak eta lidergo akademikoko gaitasunak garatzeko.

**U**E4SD proiektuak talde aitzindari bat sortzea du helburu, aditua izango dena garapen iraunkorrerako hezkuntzarako gaitasunetan, Europako goi-mailako irakaskuntzaren esparruan. Horretarako, plataforma bat sortuko du, esperientziak trukatzeko. Horrek bide emango du gidalerroei eta praktikari buruzko informazioa emateko, proiektua amaitzen denean. Proiektuko jarduerak lotura estua dute COPERNICUS Alliance sarearekin (garapen iraunkorrerako goi-mailako irakaskuntzari buruzko Europako sarea).

## Zergatik garapen iraunkorrerako hezkuntza?

Garapen iraunkorra XXI. mendean gizarteek bizi dituzten eronka handienetako bat dela ikusi da. Praktika ez iraunkorren ondorioz, desberdintasun sozial, ekonomiko eta ingurumenekoak handiagotzen ari dira, ingurumen-inpaktuaren eragina okerragotzen eta bizi-kalitatea txartzen. Ikusi denez, gure hezkuntza-sistemak erabakigarriak dira garapen iraunkorreko helburuak lortzeko, ikasleei gizarte-egiturak eta sistemak bideratzeko beharrezko ezagutza, trebetasunak eta jarrerak irakasten baitizkiete.

UE4SD proiektua, hain zuzen ere, goi-mailako irakaskuntzan garapenerako irakaskuntzari eta ikaskuntzari laguntzeko sortu da. Goi-mailako irakaskuntzak kokapen erabakigarria du garapen iraunkorrari heltzeko, etorkizuneko profesional-belaunaldiak prestatzen baititu, paradigma nagusia zalantzan jartzen baitu eta ikerketa berritzaileak sortzen baititu. Hala ere, badirudi goi-mailako irakaskuntzako ikasketa-planak garapen iraunkorrerantz bideratzeko oraindik ere orientazioa eta laguntza behar dela, unibertsitateek etorkizun iraunkorrago baten alde egingo badute.

## Proiektua

UE4SD proiektua Europako Batzordeak finantzatuko du, Lifelong Learning programaren barruan (Erasmus Academic Networks azpiprograma). 2013ko urrian hasi zen, 3 urteko iraupena izango du eta 33 herrialdeko 55 kidek osatuko dute (ikusi mapa). Kide aitzindaria Gloucestershireko Unibertsitatea da (Erresuma Batua – Iparralde) eta hiru kide nagusirekin hertsiki lanean dihardu: Madrigo Unibertsitate Autonomoa (Espainia - Hegoaldea), Karlos Unibertsitatea (Txekiar Errepublika – Ekialdea) eta Lüneburgeko Leuphana Unibertsitatea (Alemania – Mendebalde).

## Zertan laguntzen du proiektuak?

Proiektuak goi-mailako irakaskuntza garapen iraunkorrerantz bideratuko du, hiru jarduera nagusiren bidez:




UNIVERSITY EDUCATORS  
FOR SUSTAINABLE DEVELOPMENT

**1** **Reviewing the state of the art and identifying leading practice (2014):** Conducting a grounded study to map and analyse existing opportunities at a country and regional level for university educators to develop Education for Sustainable Development competences. Four sub-regional and one state of the art report across all partner countries will be generated.

**2** **Developing resources (2015–16):** The leading practice identified from the grounded study will form the basis of a publication. An online platform of resources will also be developed to support university educators and professional development teams.

**3** **Developing an academy for ESD in HE (2015–16):** Both resources identified above will

support the academy of Education for Sustainable Development in Higher Education which seeks to support the re-orientation of higher education towards sustainability. This stage will provide opportunities for reflection and capacity building for university academic leaders, educators and staff responsible for professional development.



## Zer esparrutan dago kokatuta proiektua?

Proiektua UNECEk 2012an garatu zuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Gaitasunen Esparruaren barruan dago. Gaitasunok hiru urteko prozesu baten ondoren finkatu ziren UNECEri dagokion eskualdeko hainbat adituren laguntzarekin. Oso baliagarria da unibertsitateko hezitzaileak garapen iraunkorrerantz bideratzea helburu duten UE4SD sareko jarduerak zeintzuk diren jakiteko. UNECEren Gaitasunen Esparrurako esteka: <http://www.unece.org>.

UNESCOren Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzko Ekintza Globaleko Programak dio hezkuntza-sistemen lehentasunetako bat erakundeak osorik aldatzea dela. Proiektua UNESCOren lanean oinarrituta dago eta, espresuki, gaitasunak sortzeko hezitzaile, prestatzaile eta beste aldaketa-eragile batzuen ahalmena handitzea eta beren garapen profesionala sendotzea bilatzen du. UNESCOren Ekintza Globaleko Programarako esteka: <http://www.unesco.org>.



Lifelong  
Learning  
Programme

With the support of the Lifelong Learning Programme of the European Union



## Zer emaitza lortu nahi ditu proiektuak?

- Talde aitzindari bat sortzea, aditua izango dena garapen iraunkorrerako hezkuntzarako gaitasunetan, Europako goi-mailako irakaskuntzaren esparruan, eta arlo honetako gidalerro eta praktiken berri eman dezakeena.
- Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren, kalitatea areagotzearen eta garapen profesionalaren arteko loturak ulertzen laguntzea.
- Gaitasunak garatzeko hezitzaileen ahalmena handitzeko orientazioa, laguntza eta baliabideak ematea.

## UE4SD proiektuan interesa duzu?

Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri gurekin harremanetan eta ikusi webgunea!:

<http://www.ue4sd.eu>

Email: [ue4sd@glos.ac.uk](mailto:ue4sd@glos.ac.uk)